



ENERGIA-O., ATJAK / CLAS DE ENERGÍA  
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2015  
DES2015.EU

como

arte y  
creatividad

formas

de  
encuentro

restaurativo

23-29 enero  
2016

Sala de Exposiciones  
Centro Carlos  
Santamaría  
campus Gipuzkoa





## **Artea eta kultura, biktimak eta kondenatuak elkartzeko moduak**

*"...Artea argi bihurturiko zauri bat da, zioen Georges Braquek. Argi hori behar dugu, ez bakarrik idazten dugunok, margotzen dugunok edo musika konposatzen dugunok, baita irakurtzen dugunok ere, eta margolanekin edo kontzertu batekin gozatzen dugunok. Denok behar dugu edertasuna, bizitza eramangarriagoa egiteko, Fernando Pessoa argi asko adierazi zuen moduan: "literaturak eta arteak oro har bizia ez dela nahikoa erakusten digute"..."*

*Zu berriro ez ikustearen ideia ridikulua*

Rosa Montero

## **Oinarria**

Justizia konpontzailea pertsonen arteko komunikazioan oinarritzen da, aurretik egintza bidegabe bat egon denean, zerbait berria eraikitzeko. Beraz, gogoeta egin nahi dugu artearen hizkuntzaz eta sormenaz, horren beharrezkoa den pertsonen arteko komunikazio hori bultzatzeko. Komunikazio libre bat, ahalduntzen duena, eraikitzailea, konpontzailea, gizarteak lagundua eta amaitu gabea beti.

Erakusketak tailer baten emaitza biltzen du; zehazki, 2016ko urtarrilaren 22an Maushaus Tailerraren laguntzaz (<http://maushaus.info/>) Carlos Santamaria Zentroan eginiko tailerra. Bai tailerrak bai erakusketak laguntza jaso dute Donostia 2016 Energia Olatuak programaren laguntza deialdiaren barnean.

## **Helburu zehatzak**

- Justizia konpontzailearen aukerak esploratzea hizkuntza artistikoaren bidez.
- Sormenaren hizkuntzaren eta artearen bitartez, biktimak eta arau hauste penalak egin dituzten pertsonak elkarretartzeko moduak adieraztea, injustizia baten esperientzia hura konpontzeko aukerekin lotuz, elkarrizketaren bidez, beste gizarte eragile batzuen laguntzaz.
- Parte hartzaileen kopurua: hogeitahogeita bost bat pertsona (biktimizazio bat nozitu eta/edo eragin duten pertsonak, pertsona horiekin lan egiten duten profesionalak, Biktimologia arloko ikertzaileak eta artistak).

**Informazio gehiago:** [gemmamaria.varona@ehu.eus](mailto:gemmamaria.varona@ehu.eus)